



Zurriolako Ataria

71. alea

2019-09-27

Autobus zerbitzua

Hauxe duzue garraioaren inguruan egindako azken egokitzapenak plazaratzen dituen [gutuna](#). Eskerrik asko berregokitzapenak ulertu eta bideratzen laguntzeagatik.



Hurrako barne berrantolaketa

Honez gero eskolak eta eskolaz kanpoko jarduerak hasi dira LHn. Honek Hurrari barne berrantolaketa bat berplanteatzea ekarri du. Hauxe duzue familientzako [gutuna](#). Milesker egokitzapen hauek ulertu eta bideratzen laguntzeagatik.



Nazioarteko Eskola Kirola Eguna ospatu dugu gaur

Bera Beraren eskutik, Zurriola Ikastolako LH5-6 et DBH1-2ko ikasleak ederki aritu dira Manteo kiroldegian jolas kooperatiboetan, errugbian, eskubaloian eta saskibaloian #ESSD2019 eguna ospatzen.



Irailarekin batera... Zinemaldira!

Urteroko hitzorduari kale egin gabe, LHko ikasleak Belodromoan izan dira aste honetan eta hainbat pelikula ikusi dituzte, Zinemaldiaren aitzakian.



Gauza Txikien Show Handia, LH3-4koen neurria

Aste honetan zehar Gilbert Legrand artistaren "Gauza Txikien Show Handia" izeneko erakusketaz disfrutatzen gerturatu dira Okendora kultur etxera LH3 eta 4ko ikasleak.




Kilometroak girotzen

Aurten Zarautzen urriaren 6an ospatuko den Kilometroak festa ate joka dugu. Urtero moduan [Klikmetroak](#) ekimena martxa da, beraz, egin zure metroa! Halaber, erronkako bideo-lehiaketan Zurriolako DBH4ko ikasleak parte hartzen ari dira. Lagun iezaiezu eta [eman](#) botoa! Estimatu dute!



EJko beka-eskaerak astelehenean aurrera

Datorren astelehenean aurrera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko unibertsitatez kanpoko ikasketa-bekak eska daitezke. [Hauxe](#) duzue zirkularra.



OHARRAK / AGENDA:

- **Guraso bilera orokorrak:** Informazio [berritua](#). Txosten berriak eskuragai.
- **Baimen orokorrak:** [Galdetegia](#).
- **Idazkaritza Soroa:** Akatsak telefonoan. Harremanetarako: idezkaritzahh@zurriolaikastola.eus
- **HH:** Soroako arau eta antolaketa orokorraren [txostena](#).
- **DBH3-4:** Egurditan ateratzeko [baimenak](#).
- **BATXILERGOA:** Ikastolatik irtetzeko [baimenak](#).
- **JANGELA:** Urriko [menua](#).
- **EUSKARA KLASEAK GURASOENTZAT:** [Zirkularra](#).
- **PARKETARRAK:** Egunik onenak [elkarrekin euskaraz joalsean](#). [Informazioa](#).
- **IPUIN KONTALARIEN V. MARATOAIA:** [informazioa](#).

ni hiru ikastola mundura!

